

Euskal liburugintza 1978.ean

Joan Mari Torrealday

Inoiz baino liburu gehiago

1978ko liburugintzaren aurkezpen hau, konstatazio honekin-
txe hasten dut: sekula baino liburu gehiago atera da euskaraz.
Zehatzago esanik: 191 kontabilizatu ditut nik, hots, 169 liburu
eta 22 liburuxka (50 orrialdetik beherakoak, alegia)¹. Alde
dexearekin iragan ditugu aurreko urteetako zifrak, hots, 154
eta iazko 150 horiek.

Hala ere, jendearen ustea besterik da. 1978ko liburu-produk-
zioa urria eta eskasa izan dela sinesturik dago jendea. Iaz beza-
latsu. Iaztik hasita, topiko bilakatu da eritzi hori.

Zergatik ote datu objetiboen eta eritzi hedatu hauen arteko
alde hau?

Gauza bera esplikatu nahian iaz ere arrazoi pare bat idaroki-
tzen saiatu nintzen (JAKINen 5. zenbakian ikus daitekeenez).
Baliagarritzat jotzen ditut aurtengoari buruz ere arrazoi haiek.
Bide beretik lotuko natzaio gaiari orain ere.

Gure liburugintzaz dugun inpresio eskasaren errua egoera
politikoaren «normalizapenak» (?) du. Katalanek kexu bera dute.
Esplika nadin. Diktaduraren garaian, hots, joku politikorik ez
zenean, kulturaren protagonismoa orain baino askoz nabarmena-
goa zen. Kulturatik igaro ohi zen politikaren parte on bat. Gaur,
aldiz, politikak bere bideak ditu, eta etxeko neskame bezala
gelditu zaigu kultura. Garai batetako harma batzu baztertu egin

dira, borroka-leku berri honetan alkantzu gehiagoko harma berririk behar direla eta.

Egoera berri honek, gure egiazko kultur egoera argitu egin du. Alegia, euskal kultura, eta honen barruan hizkuntza eta liburua, bazter-kultura da. Hauxe da, nere ustetan, oinarritzko arrazoiak, gainerako ia dena esplikatzen duena. Bistan da, egoera hau urte batetik bestera ezin daitekeela alda, igarokorra ez baino estrukturala bait da. Honetaz jabetzea, gauza sana da, euskal kulturagile asko k.o. bezala geratu bada ere. Deslilurapen ugari dago bazterretan. Uste genuena baino gutiago eta ahulago garen inpresioa du jende askok: duela 5-10 urteko euforiak pot egin du. Iazko liburu-produkzio hau berau duela 5 urte gertatu izan balitz, a zer komentario triunfalistez agurtuko genuen. Gaur, askoz epelago bide gaude, geure mugen berri gehiago dakigulako agian.

Merkatuko jokoan

Euskal liburu-produkzioarekiko inpresio txar hori esplikatzeke, une uneko arrazoirik ere bada. Euskal jendearen arreta eta atentzioa, beste nonbaitean dago, lehen baino gutiago agian euskarazko liburuetan. Garai batetan protagonismo eta oihartzun askoz handiagoa zeukan euskarazko liburuak. Arrotzen zituen eztabaidak gogoratu besterik ez dugu. Eta gaur? Gaur euskal liburuari ez dio inork kasu handirik egiten. Euskal liburua ezagutaraztea, jendea hartara interesatzea, ikaragarri zaila gertatzen ari da. Zailtasun honek idazle zein argitarazle zenbait nekatu egin ditu. Nahiago dute erdaratik jo.

Euskarazko liburuaren marginalismo hau dela eta, argitaletxeak beraiek ere ez daude errurik gabe. Euskal liburuak ez du promoziorik, euskal gai buruzko erdal liburuak baduen bitartean. Kasu ohoregarri batzu salbu, euskal argitaletxe zenbaitetan beraietan ere, euskarazko liburua «parent pauvre» da, erdarazkoak mantendurik bizi dena (bizi edo hobe, «existidu»). Errentagarri ez denez, ez da lantzen, ez da zaintzen. Ez da promozionatzen. Kasu bat bakarrik aipatzearen: zer publizitate egiten zaio euskal liburuari komunikabideetan? Neurri on batean editorearen esku dago hori, ordainduta ala ordaindu gabe. Axola edota sinesmen falta dago. JAKIN aldizkarian bertan, liburu kritikaren txoko bat sortu eta indartu nahian, euskal editorialei liburuak bidaltzeko behin eta berriz eskatu diegu, eta guti

batzuen erantzuna besterik ez dugu jaso. Klaro, berririk ematen ez bada, gero jendeak ez daki holako edo halako libururik badenentz ere.

Dena den, salakuntza hauek seinalatzen duten gaitzaren gaitetik dago euskal liburugintzaren soluzioa. Merkatuaren logika harian, ingurune honetan, euskal liburuak ez du erdarazkoarekin borrokatzeko ahalmenik. Erdarak zanpatzen du euskara. Euskal liburuak burua jaso nahi badu, subentziora jo behar du. Jai du, bestela. Modu askotariko subentziora. Eremu txikiko hizkuntza guztietan hala jokatu beharra dago. Eta halaxe egin ohi da Europako zenbait herritan. Liburuaren politikaren lehen ekintza, hauxe da, subentziora.

1978ko gaiak

Hurbil gakitzen gehixeago iazko liburugintzari. Zer gai erabili izan dira euskaraz 1978an? Zerrendaren aurreko laukian ikus dezake irakurleak panorama osoa.

Hona lehenengo bost gai-sailak:

| Gai-saila | % |
|---------------------------|-----------|
| Literatura | 30 |
| Orotarik | 13 |
| Hezkuntza | 12,5 |
| Erljioa | 9,5 |
| Historia-Biografia | 7 |
| | <u>72</u> |

Ikusten dugunez, lehen bost gai-sail hauek liburugintza osoaren ia hiru laurdena osatzen dute. Gutxi, oso gutxi gelditzen da gainerako 18 gai-sailentzako. Alegia, beste alor horietan gutxi idatzi da euskaraz, hala nola, Filosofian, Psikologian, Soziologian, Politikan, Deretxoan, Medikuntzan, Inginaritzan, Nekazaritzan, Geografian. Eta okerrago dena, jarraiko gai hauek ez da liburu bat bakarrik ere idatzi: Arte eta Zientzia militarretan, Merkatalgoan, Garraioetan, Etxe-ekonomian, Antolakuntzan, Jostaldi, Joko eta Kiroletan.

Hutsuneen zerrenda luze honek badu esangurarik, noski. Honen inguruan, arazo larri bat bakarrik planteatu nahi nuke, oinarri-oinarrizkoa iruditzen zaidana. Euskarazko liburugintzak

selektiboa izan behar al du, gai-mota batzuetara soilki mugatua? Hala da, izan, gaur, baina ezinbestean. Espreski horretara jo behar ote da?

Non geldituko litzateke orduan gure belaunaldiaren eginkizun historikoa, hots, euskara kultur-tresna bilakatzea eta kultur-eremu guztietara zabaltzeko asmo hura? Antoni M.^a Güell eta Modest Reixach, kultur minorietako eta bereziki Catalunyako egoera ikertu ondoren, konklusio honetara iristen dira: «La producció en catalá haurà d'ésser, doncs, selectiva i comptar amb la presència de la producció castellana».

Oraingoz hauzia plazaratu besterik ez dut egiten. Honen inguruko eritzi-emate bat biziki onuragarri dakiguke, euskal liburuaren politika bat definitzeko orduan lehen mailako gaia bait da.

Literaturaren krisia?

Jarrai dezagun 1978ko produkzioaren egitura aztertuz. Puntu bat edo beste azpimarratzeaz aski dukegu. Literaturaren lehen tokia iruditzen zait denetan seinalagarriena. Inoiz baino liburu gehiago publikatu da literatura alorrean, UNESCOren klasifikapenean 21. lekuan sartzten den liburua, alegia. 50 liburu eta 7 liburuxka, denetara. Sail honen barne-orekari begiratu bat ematen badiogu, honela bana genezake literaturgintza hori:

| | % |
|---|------|
| — Literaturaren historia, literatur kritika | 17,5 |
| — Bertsoak | 7 |
| — Antzerkia | 5 |
| — Elaberria | 24,5 |
| — Herri-literatura | 3,5 |
| — Olerkiak | 23 |
| — Ipuinak, kontakizunak, narrazioa | 19 |

Prosa literarioa eta narrazioa dira nagusi: elaberriaren, kontakizunen, ipuinen, narrazioaren artean, %43,5 osatzen da, olerkiak, bere aldetik, literatur produkzioaren 23a hartzen du.

Liburugintzaren barne-orekari buruz, bada topikorik. Beti esan ohi da, eta aurten ere bai, liburu-produkzioan literatura

bazterturik dagoela, literatura guti egiten dela. Produktzioaren datu hauek kontuan edukitzen al dira? Baztertuago eta eskasago daude beste liburu-mota batzu.

Are gehiago: euskal literaturgintzaren arriskuaz ere mintzatu da bat baino gehiago. Zer esan? Euskal literatura ez dut nik arriskutan ikusten. Produzitzen da, ikusten dugunez. Literaturaren errebindikapena goraki aldarrikatuz reazio gazte bat, Ustela saila eta Pott inguruan batipat. Besteak beste, gainerako gai-mota batzuen erabilera galtzearen arrisku gehiago somatzen dut nik. Ikusi bestela azken urteotako liburugintzan zein liburu-mota nagusitzen den: euskararen inguruko liburu funtzionala, bateko; eta liburu literarioa, besteko.

Kontuan dut, baita, A. M. Güell eta M. Reixach liburu-ikertzaileek konstatatzen duten joera hau: «Un dels camps —potser *el camp*— privilegiats en la producció editorial dels paisos d'àrea lingüística petita és el de la literatura».

Liburuaren jatorria eta adina

Noski, beti bezala, aurtan argitaratu diren liburuak oro ez dute ez jatorri eta ez sorketa-urte bererik. Liburu batzu aspaldi eginak dira; batzu, euskaraz asmatuak; beste batzu, erdaratik itzuliak. Bada, gure artean gero eta gehiago ematen den beste liburu-mota bat ere: elebiko liburua, euskara eta erdara liburu berean agertzen dena. Hiru mota bereiz daitezke honen barruan: euskaraz eta erdaraz testu desberdina agertzen denekoa; erdal testua euskarazkoaren itzulpen denekoa eta, hirugarrenik, maizenik gertatzen dena: euskal testua erdarazkoaren itzulpen denekoa.

Ikus dezagun, bada, liburu-produkzioa nola banatzen den irizpide hauen arabera: euskaraz bakarrik lehendabizikoz atera den liburua: %58 da; liburu bilinguea: %17,2; liburu euskaratua: %9,4. Denetara: %85.

Beraz, liburu berrargitalduak %15 osatzen du. Berrediziotan, bi joera nabarmendu dira nagusiki: bateko, ikas-liburuaren bigarren argitarazioa, adibidez Gerok egin duena, hau da, azken urteotako liburua, eskaera handikoa; eta besteko, liburu zaharra, aspalditik agortua, hots, Hordagoren ekintza, euskal klasikoak argitalduz.

Euskara batua

1978ko liburu produkzio honetan hizkuntza-motaren erabile-ra ikusi gabe ezin gaitezke geldi.

Euskara baturanzko horren eta euskalkien arteko banakuntza nola gertatu da?

1978ko liburugirtza osoaren %65 «euskara batuan» idatzi da, %14,5 gipuzkeraz, %10,5 bizkaieraz eta %8 Iparraldeko euskalkiren batetan. Esan bezala, produkzio osoaren partiketa da honoko hau, liburuak, originala nahiz itzulpena edo berrargitaldua izan. Idazle-lana hurbilagotik ezagutzeko, eta, jakina, batasunaren eragina benetan neurtzeko, gehixeago zchaztu behar dugu liburugintzaren analisia. Berredizioa alde batera utzita, aurreten lehenengoz atera diren liburuak aztertzen baditugu, euskara batuaren aldeko portzentaiak are nagusiagoak dira: euskara batuan, %71,6; gipuzkeraz, %14,8; bizkaieraz %11 eta Iparraldeko euskalkitan %1,8.

Ikusten da: berredizioa ez kontsideratzerakoan, Iparraldeko euskalkien pisua gutitu egiten da. Izan ere, Ipar Euskal Herriko euskalkien %8 hori, Hordagok berrargitaldu dituen klasikoek esker da, neurririk handiengan. Klasikoen ekarri hau kendurik, beraz %1,8an gelditzen da Iparraldean euskara batu-batuan ez baino hizkeltan idatziz jarraitzen dutenen kopurua.

Ekintza editoriala

Produkzioaren aldetik barreiakuntza gehiegi dago euskal liburugintzan. Hau da, argitarazle ugari dago, horietako asko edo gehienak, liburu oso gutirekin plazaratzen badira ere.

Sakabanakuntza honetaz bestalde, egile-editore bezala jokatzen dutenak ere ugari dira: 20tik gora bai behintzat.

Libururik gehien atera dituztenen artean, Hordago, CAP, Gero daude. Editoriale ez izanik ere, UEUK ahalegin handi bat egin du, 14 liburu atera bait ditu². CAPEk bere euskal saila indartu egin du. Gero iazko bide berari darraio. Hordago izan da 1978ko errebelazioa, zalantzarik gabe; etengabeko lana egin bait du euskaraz eta erdaraz. Euskaraz, «Euskal klasikoak» izan da bere lanik berezicna, eta aurrerantzean, euskara errazean ateratako liburuak gehituko ditu. Ediciones Vascasek ere geroz eta liburu gehiago atera ohi du euskaraz, Eta berdin Elkar-ek. L. Zugaza ere aspergabe dabil. Eta abar.

Badirudi, gerora begira, hiruzpalau editorialen artean segur-
tatuko dela produkzio nagusia, denbora berean liburu-argitarazle,
liburu-banatzaille eta liburu-saltzaille izanki. Indartuz joango dira
editoriale batzu, baina oraingo sakabanaketa honek luzaro ja-
rraituko du, oker ez banago.

Obarra: Liburu zerrendan, tituluaren ondoan eta kako artean, jakigarri
hauek ematen ditut: i=itzulpena; b=berrargitalpena; e=elebi-
koa, bilinguea.

¹ Zerrenda honetan jaso gabe, gelditzen den libururik ere bada. Arra-
zoi askogatik. Euskal liburu-produkzioa aski barreiatua da, batetik, eta
bestetik, liburuak oro bilduko duen erakunderik ez dugu. Nekeza da,
orduan, liburu guztien berri izatea. Beste arrazoi bat ere bada: nahiz eta
iazko lege gordailua eraman, zerrenda itxi bitartean argitaratu gabeko li-
buruak ere badirela. Dena den, portzentaietan nabardura hauek sortuko
dituzten fluktuapenak gora behera, ez zerrendak ez iruzkinak galtzen du
baliorik. (Zerrenda osatuz, edo zuzenduz inork oharrik bidaltzen badit,
aurretiaz damaizkiot eskerrak).

Urteko liburua zein den kontsideratzeko, lege gordailua erabili ohi da
irizpide erabakitzaile gisa. Guk ere hala egiten dugu. Baina bada lege gor-
dailurik eta ISBN gabeko publikapenik ere; hauen kasuan argitarazioko
urtea hartzen dugu kontutan.

² UEUko publikazio horiek liburu-klasifikatzaile ofizial batek ez li-
tuzke liburutzat joko, ISBN eta Lege-gordailurik gabekoak direnez. Guk
haintzat hartzen ditugu, halere, euskarazko produkzio idatzia taxuz aztertu
ahal izateko.

1978ko liburuak

| Liburuaren gai-sailkapena | Zenb. abs. | % |
|--|------------|------------|
| 01. — Orotarik. Bibliografia. Haur eta gazte literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Saiakera eta artikulak gai desberdinetaz. Omenaldiak | 25 | 13 |
| 02. — Filosofia. Psikologia | 1 | 0,5 |
| 03. — Erljioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa. Asketika eta Mistika. Teologia pastoral. Eskritura Saindua. Liturgia | 18 | 9,5 |
| 04. — Soziologia. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa. Hainbat estatistika | 3 | 1,5 |
| 05. — Zientzia politikoak. Ekonomia politikoa eta soziala. Estatuaren teoria. Nazioa eta lurraldea. Barne politika. Alderdi politikoak | 4 | 2 |
| 06. — Zuzena. Administralgo publikoa. Laguntza soziala. Zuzen publikoa, konstituzionala. Politiko. Administrazioa. Zuzen Kanonikoa eta Eklesiastikoa | 2 | 1 |
| 07. — Arte eta Zientzia militarrek | — | — |
| 08. — Irakaskuntza. Hezkuntza. Pedagogia. Irakaskuntza eskol-aurrekoa eta oinarrikoa. Oinarriko Irakaskuntza Orokorra | 9 | 5 |
| 09. — Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak | — | — |
| 10. — Etnologia. Giza arrazak. Bizitza pribatu eta publikoetako ohitura eta usuarioak. Folklorea. Tradizio eta kondairak | 6 | 3 |
| 11. — Hizkuntzalaritza. Filologia. Euskara. Hiztegiak, metodoak, gramatikak | 24 | 12,5 |
| 12. — Matematikak. Matematika jeneralean. Algebra | 6 | 3 |
| 13. — Natur zientziak. Meteorologia. Klimatologia. Fisika. Kimika | 8 | 4 |
| 14. — Medikuntza zientziak. Higiene publikoa. Fisiologia | 2 | 1 |
| 15. — Inginaritza. Teknologia. Industria. Lanbide eta eskulana. Hainbat industria | 1 | 0,5 |
| 16. — Nekazaritza. Abeltzaingoa. Arrantza. Agronomia. Lur lanketa | 2 | 1 |
| 17. — Etxe ekonomia | — | — |
| 18. — Antolakuntza | — | — |
| 19. — Arte ederrak. Artearen filosofia eta kritika. Margoak, marrazkiak, grabatuak. Fotografia. Musika eta musikatresnak. Antzerkia, balleta, dantza | 7 | 4 |
| 20. — Jostaldiak. Denborapasak. Jokuak. Kirolak | — | — |
| 21. — Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsoak. Antzerkia. Elaberria. Herri literatura. Olerkia. Ipuinak | 57 | 30 |
| 22. — Geografia. Bidaiak. Eskualde geografia. Bidaiari eta turistaren gidaliburuak. Euskal Herriko geografia | 3 | 1,5 |
| 23. — Historia. Geografia. Euskal Herriaren eta haren eskualdeen historia. Zibilizazioaren eta kulturaren historia. Biografia. Oroitzapenak | 13 | 7 |
| Guztira | 191 | 100 |

- Aditza III-IV.** (aditz konparatua). Jose Maria Irazola. (Udako euskal ikastaroa-Derio). L. Zugaza. Bilbao. 22 x 29,5. 198 or.
- Aeroportuko espioia** (i). Alwyn Cox. Euskaltzaindia. Bilbao. 13 x 20. 16 or.
- Agiriak Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez.** Askoren artean. C.A.P. Donostia. 25 x 28,5. 208 or.
- Aihen Ahula** (haur denborako hixtorio mixterio...). Daniel Landart. Elkar. Donostia. 14 x 21. 158 or.
- Akustika.** Elhuyar. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 102 or.
- Algebra bektoriala.** Luis Bandres. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 31 or.
- Amaiur** (b). Yon Etxaide. Gero. Bilbao. 11 x 18. 136 or.
- Andra Dana Maria privilegiatua** (b). Silvain Pouvreau. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 100 or.
- Antropologiazko ikastaroa.** Lejoa-ko biologi talde batek. U.E.U. Bilbao. 14,5 x 20,5. 172 or.
- Aralar (Aralar'ko adiskideak) 1928-1978.** Askoren artean. SGEP. Donostia. 21 x 27. 130 or.
- Arrantzaleen bizitza.** Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa. 10,5 x 18. 158 or.
- Arrasateko herriak Euskadi osoari.** Herri batzorde ikertzailea. —. —. —. 24 or.
- Arte de Guipúzcoa al alcance de los niños,** El. M. A. Arrazola. C.A.P. Donostia. 21 x 21,5. 146 or.
- Artea eta Gizartea.** J. Azurmendi. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 96 or.
- Asekaitz, Maiteño.** Martin Iturbe, Xabier Azurmendi. C.A.P. Donostia. 13,5 x 21. 138 or.
- Asterix eta godoak** (i). Goscinny-Uderzo, I. Beobide. Donostia. 22 x 30. 48 or.
- Asterix eta urrezko igitia** (i). Goscinny-Uderzo, I. Beobide. Donostia. —. 22 x 30. 46 or.
- Asterix Helbetian** (i). Goscinny-Uderzo, I. Beobide. Donostia. —. 48 or.
- Asterixen ibilaldi bat** (i). Goscinny-Uderzo, I. Beobide. Donostia. —. 48 or.
- Aurrera beti.** M. M. Zubiaga, S.J. Egile-editore. —. 11 x 18. 230 or.
- Azkatasunaren Yarra** (i). Agirre-Lekube'tar J. A. / Gerenabarrena'tar Andoni. Graf. Bilbao. Zornotza. 13 x 19,5. 420 or.
- Azkenean Dilindan.** Jon Casenave-Martin Larzabal. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 140 or.
- Bakarrik noa ikastolara** (i). Asunción Lissón / X. Mendiguren. La Galera. Barcelona. «Apurak» saila. 15 x 17. 16 or.
- Bale denborak.** Agustin Zubikarai. L. Zugaza. Durango. 13 x 20. 155 or.
- Baserria-Baratza.** (curso radiofónico en euskera, 1977-1978). —8 liburuxka—. —. SGEP. Donostia. 21 x 27. (Denetara) 170 or.
- Begia begi truk** (b). Jon Etxaide. Gero. Bilbao. 18 x 11. 120 or.
- Belartzelaiko mutikoteak.** Andoni Sarriegi. Gero. Bilbao. 13,5 x 19,5. 116 or.
- Bi saindu hescualdunen bizia: San Iñazio Loiolacoarena eta San Franzizco Zabierecoarena** (b). Franzizco Lapitza. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 252 or.
- Biblia edo Testamentu zar eta berria** (b). Aita Fray Jose Antonio de Uriarte. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 128 or.
- Bilintx. Indalecio Bizkarrondo (1831-1876).** Bizitza eta bertsoak (Vida y

- poesías) (e). Antonio Zavala / M. Pelay Orozco. SGEP. Donostia. 22,5 x 24. 426 or.
- Bilintx** (1831-1876). A los 100 años de su muerte —Conferencias y Cursos literarios— (e). SGEP. Donostia. 16 x 14. 256 or.
- Bizipenen bultzadaz**. Mikel Zarate. L. Zugaza. Durango. 13,5 x 19,5. 70 or.
- Bizitzako urratsetan**. Martin Iturbe. C.A.P. Donostia. 12,5 x 21. 44 or.
- Bolibar, Amerikako askatzailea** (e). J. L. Salcedo-Bastardo / X. Amuriza. E.V. Donostia. 15 x 21,5. 370 or.
- Cristau dotriñ berri-ecarlea** (b). Fray Juan Antonio Ubillos. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 230 or.
- Devoten breviariora** (b). P. Argaiñaratz. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 110 or.
- Diálogos guipuzcoanos y vizcaínos, dialogues laburdins et souletins** (b). Iturriaga, Uriarte, Duvoisin, Inchauspe. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 122 or.
- Diccionario castellano-euskara, euskara-castellano** (laburpena): 26.000 hitz. Luis Mari Mujika. E.V. Donostia. 10 x 15. 414 or.
- Disoluzioak, jalkiak, oxidazio erredukzioa**. M. Jesus Barandiaran eta beste. U.E.U. Bilbao. 14,5 x 20,5. 132 or.
- Eboluziozko psikologiako oharra**. Eukeni Abasolo eta beste. U.E.U. Bilbao. 14,5 x 20,5. 90 or.
- Egun on!** (i). Asunción Lisson / X. Mendiguren. La Galera. «Aurrak» sorta. Barcelona. 15 x 17. 26 or.
- Eibarko Sozialismoa**. J. I. Paul Arzak. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 96 or.
- Elizanburu**. Antonio M. Labayen. Auñamendi. Donostia. 12 x 18. 234 or.
- Elsa Scheelen** (b). Txillardegui. Elkar. Donostia. 13,5 x 21. 248 or.
- Ene Sinestea**. Etien Salaberry. Egile-editore. Baiona. —. —.
- Energia**. Elhuyar. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 163 or.
- Eracusaldia**. (3 liburuki) (b). Juan Bautista Aguirre. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 1.802 or.
- Erlatibitatearen teoria espeziala**. Luis Emaldi eta beste. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 104 or.
- Errealismo Sozialistaz**. J. Azurmendi. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 12 x 17. 130 or.
- Errekalde kaleko burruka**. (oinharrizko euskara. 1. maila). Fikzioa. Euskaltzaindia. 13 x 20. 29 or.
- Erroma'ko Eleizearen Araudia** (i). A. Ipolito Larrakoetxea. Kardaberaz. Tolosa. 15,5 x 21,5. 472 or.
- Escu-liburua, ta berean eguneango cristiñau-cereguñac** (b). A. Fr. Pedro Antonio Añibarro. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 238 or.
- Eskolaurrea (I). Hizkuntza sikomotrizidada**. (multikopiaz). Elkar lanean. Sto. Tomas Lizeoa. Donostia. 22 x 32. 80 or.
- Esku leuna**. Gotzon Garate. C.A.P. 1978. Donostia. 13,5 x 21. 168 or.
- Espainiako Konstituzioa / Constitución española, La** (e). X.X. —. 13 x 19. 94 or.
- Espazio topologikoak**. Eburne Biritxinaga eta beste. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 105 or.
- Estatistika**. Angeles Iztueta. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 28 or.

- Etiopia.** Bernardo Atxaga. Pott liburutegia. Santutxu-Bilbao. 14,5 x 20,5. 118 or.
- Euria** (i). Asunción Lissón / X. Mendiguren. La Galera. «Apurrrak» saila. Barcelona. 15 x 17. 16 or.
- Euskadi Konstituzioari begira / Euskadi ante la Constitución.** ESEI. —, 174 or.
- Euskadi margolaritzan / Euskadi en la pintura** (e). —, —, —.
- Euskadiko Geografia.** Gregorio Arrien, Iñigo Agirre / Sabin Berruetabeña, M. Olazar, J. A. Orbegozo. Ibaizabal argitarazlea. Euba. 16 x 23. 171 or.
- Euskal Aditza, eskemak eta ariketak** (multikopiaz). Goiherriko Euskal Eskola, 1978. Lazkao, 21,5 x 31. 246 or.
- Euskal Elertia.** S. Onaindia. Ibaizabal, Euba. 10 x 23. 230 or.
- Euskal-eliztiaren betebidea / Complemento de la gramática** (2 liburuki, 12 cassette). Umandi. —, —, —.
- Euskal-errietaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba** (b). Aita Prai Bartolome Santa Teresa. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 208 or.
- Euskal Herriaren informazio sozio-ekonomikoa (1929-1978) — Katalogo bibliografiko. Información socio-económica sobre el País Vasco (1929-1978) — Catálogo bibliográfico.** G. Ansola, Javier Alberro, Jose Artola, Inazio M. Zabala. IKEI. Donostia. 15 x 22. 994 or.
- Euskal Herriko ipuin eta kondairak.** Joseba Gereño. Egile-editore. Bilbao. 16,5 x 23. 86 or.
- Euskal Herritik erdal herrietara.** Txillardeggi. Egile-editore. Donostia. 14,5 x 21. 496 or.
- Euskal Kondairaren sintesia / Síntesis de la historia del País Vasco.** Martín de Ugalde / Jose Antonio Agirre. E.V. Donostia. 12,5 x 19. 342 or.
- Euskal Joskera.** Adolfo Aregita. L. Zugaza. Durango. 12,5 x 19,5. 328 or.
- Euskal literatura (1915-1940).** S. Onaindia. Etor. Donostia. —, —, 460 or.
- Euskal literatura II** (Azterbideak, azterketak, aztergaiak). Mikel Zarate. L. Zugaza. Durango. 12,5 x 20. 134 or.
- Euskal Ortografia.** Mikel Zarate. L. Zugaza. Durango. 13 x 20. 128 or.
- Euskaldunak. Euskal Etnia** (i). Askoren artean. Etor. Donostia. —, 250 or.
- Euskalerrria, Geografi/Historia.** Iñaki Goikoetxea. Edorta Kortadi. Gero. Bilbao. —, 54 or.
- Euskalerrriaren kondaira.** (6-7 mailak). Gregorio Arrien. Graf. Bilbao. Amorebieta. 16 x 23. 112 or.
- Euskara lantzen 1.** (O.H.O. 7. mailarako). Hegaz, Erein. Donostia. 17 x 24. 214 or.
- Euskara bizia.** X. Amuriza. —, —, —.
- Euskara mailaka. Ariketak.** SEIE. Gero. Bilbao. 15 x 22. 344 or.
- Euskararen liburu zuria.** Siadeco, Euskaltzaindia, LKA. Euskaltzaindia. Bilbao. 16 x 23. 676 or.
- Euskara 6** (b). Juan Antonio Letamendia. Gero. Bilbao. 18 x 25,5. 176 or.
- Euskera bizitik, 1 A-B, 2-A** (b). Jesus Eguzkitza, Jabier Uriarte. Eguzkitza edit. Bilbao. —, 290 or.
- Euskara, erro eta gara.** Bittor Kapanaga. Egile-edit. Otxandio. 13,5 x 20. 216 or.
- Euzkadi'n gudateko argibide irudiak / Documentos gráficos militares de Euzkadi** (e). Bidasoa inguraztiak, 1. —, —, 28 or.

- Fableac edo aleguiac** (b). Goyhetché. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 344 or.
- Fisika Generala**. J. R. Etxebarria. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 222 or.
- Fisiologiazko ikastaroa**. Miren Onaindia eta beste. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 246 or.
- Foruak eta euskal literatura**. Angel Zelaieta. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 112 or.
- Gernika'ko beste arbola** (i). Luis de Castresana / Jaime Kerexeta. L.G.E.V. Bilbao. 15,5 x 22,5. 124 or.
- Gipuzkoako Dantzak / Danzas de Guipúzcoa**. J. Antonio Urbeltz. C.A.P. Donostia. 21 x 28. 16 or.
- Gizartea 7. Geografia**. Taldean egin. J. A. Arbelaiz eta beste. Gero. Bilbao. 20 x 26,5. 166 or.
- Gizartea 7. Historia**. Elkar lanean. Gero. Bilbao. 20,5 x 26,5. 140 or.
- Gogoz** (Gure herriko gauzak) (e). J. S. Martín. C.A.P. Donostia. 14 x 20. 458 or.
- Gomikia 2**. Askoren artean. Elkar. Donostia. 31 x 21. 112 or.
- Gramatika bideetan**. Patxi Goenaga. Erein. Donostia. 15,5 x 22,5. 380 or.
- Guardasola ahantzia**. Koldo Izagirre. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 52 or.
- Han-hemenka**. J. B. Etcheberry. —. Baiona. —. —.
- Herri baten deihadarra / El grito de un pueblo** (e). A. Schommer / M. Ugalde. E.V. Donostia. 24,5 x 30. 239 or.
- Herria-Eliza EUSKADI pueblo-Iglesia** (e). Askoren artean. Graf. Itxaropena. Zarautz. 15 x 21. 506 or.
- Herria eta Bidea. Hitzak eta kezak**. Luix M. Mujika. E.V. Donostia. 12 x 17. 200 or.
- Hijos ilustres de Segura / Herriko Seme Ospatsuak — Segura**. Juan Bautista de Ayerbe (biltzaile). C.A.P. Donostia. 15 x 21. 84 or.
- Hilargiaren hotzikarak**. Pello Lizarralde. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 38 or.
- Hiltzaile baten bila** (b). X. Gereño. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 132 or.
- Hinki-Hanka. Poemak**. Manex Erdozainzi-Etxart. Elkar. Donostia. 13,5 x 21. 118 or.
- Hirugarren atalak**. Bitaño. Gero, Kimu. Bilbao. 13,5 x 19,5. 133 or.
- Hitzakia (aitzaki abila)**. J. J. Garmendia. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 144 or.
- Hitz egin!** Ariketa idatziak — 1. maila. Euskaltzaindia. Bilbao. 21 x 30. 30 or.
- Hitz egin!** Ikaslearen liburua — 1. maila. Euskaltzaindia. Bilbao. 21 x 30. 140 or.
- Hitz egin!** (i). Irakaslearen liburua. 1. maila. L. G. Alexander / Euskaltzaindia. Euskaltzaindia. Bilbao. 21 x 30. 176 or.
- Hiztegi orokor teknikoa. 2. Euskera-Gaztelera**. Luis M. Mujika. E.V. Donostia. 17 x 24. 618 or.
- Hondartza** (i). Asunción Lissón / X. Mendiguren. La Galera. «Aurrak» saila. Barcelona. 15 x 17. 16 or.
- Ibañeta pastorala**. (euskara bat., zuberotarra-españolara-frantsesa). Junes Casenave Harigile / G. Larratxe, O. Idiart. Jakin. Arantzazu. 11 x 18. 222 or.
- Idaz-lan guztiak. 1. Aozko literatura** (e). Lekuona'tar Manuel. Kardaberaz. Tolosa. 16 x 21,5. 624 or.
- Idaz-lan guztiak. 2. Eusko Etnografia**. Lekuona'tar Manuel. Kardaberaz. Tolosa. 16 x 21,5. 582 or.

- Ikas-bidea 2.** Servicio de vascuence. I. Oyarzabal, I. Goikoetxea, Aberasturi. Excma. Diputación Foral de Alava. Gasteiz. 21 x 30. 66 or.
- Iker.** Juan José Fernández. Egile-editore. 21,5 x 15,5. 40 or.
- Iker eta Ixone —orrazi magikoa—.** G. Muro. Erein. Donostia. 21 x 30. 20 or.
- Iesu aurraren bizitza.** Manuel Lekuona. Graf. Izarra. Usurbil. 18 x 23,5. 24 or.
- Ikasbidea, 2 (batuan).** Oyarzabal, Goikoetxea, Aberasturi. Dip. F. de Alava. Gasteiz. 21 x 30. 66 or.
- Iparragirre'ren bizitza (i).** Luis de Castresana/Jaime Kerexeta. L.G.E.V. Bilbao. 15,5 x 22,5. 188 or.
- Ipuinak.** Bitaño. Gero, Kimu. Bilbao. 13,5 x 19,5. 80 or.
- Irakur 2 (b).** A. Lertxundi, J. Arrizabalaga, M. P. Martiartu. Marrazkiak: A. Olariaga. Gero. Bilbao. 18 x 25,5. 142 or.
- Irakur 3 (b).** A. Lertxundi, J. Arrizabalaga, M. P. Martiartu. Gero. Bilbao. 18 x 25,5. 144 or.
- Irakur 4 (b).** A. Lertxundi, J. Arrizabalaga, M. Martiartu. Marrazkiak: Edorta Kortadi. Gero. Bilbao. 18 x 25,5. 144 or.
- Iruineako asesinatzea.** Xabier Gereño. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 102 or.
- Itun berria.** Olariaga. —. —. —. —.
- Iturriaga.** Mujíka'ko Gregorio. C.A.P. Donostia. 15 x 21. 40 or.
- Izueta'ren olerkiak (e).** Jose Garmendia Arruabarrena/Joshe Mari Baztarrika. Kardaberaz. Tolosa. 15,5 x 21. 192 or.
- Jalgi hadi.** Irakaslearen liburua I. Hondarraitz taldea. Elkar. Donostia. 17 x 24. 110 or.
- Jesu-Christoren imitacionea (b).** M. Chourio. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 508 or.
- Jesús.** Xabier Azurmendi. L. Zugaza. Irrisko xorta. Durango. 15,5 x 24. 52 or.
- Joan eta Ane zigarro bat erretzen.** Ibon Sarasola. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 37 or.
- Jo ta ke 1.** (euskara ariketak, fitxa osagarriak). Joxe Joan G. de Txabarri. Legazpiako Gau Eskola. Legazpia. 21 x 31. 88 or.
- Jo ta ke 2.** (euskara ariketak, fitxa osagarriak). Joxe Joan G. de Txabarri. Legazpiako Gau Eskola. Legazpia. 21 x 31. 156 or.
- Jurgi kapitaina Britainian.** X. Gereño. Egile-edit. Pipa saila. Bilbao. 11,5 x 16,5. 128 or.
- Kepa Enbeita Urretxindorra 1878-1942.** X. X. Enbeitatarrak. Muxika. 15 x 21. 48 or.
- Kimika Orokorra.** Jazinto Iturbe. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 320 or.
- Kolasin haurtzaindegirakoa (i).** M. Ferrer, C. Miranda, M. C. Perez, D. Rosillo/X. Mendiguren. L.G.E.V. Bilbao. 21,5 x 20,5. 64 or.
- Kolasin 1 (i).** M. Ferrer, C. Miranda, M. C. Perez, D. Rosillo/X. Mendiguren. L.G.E.V. Bilbao. 21,5 x 20,5. 64 or.
- Kolasin 2 (i).** M. Ferrer, C. Miranda, M. C. Perez, D. Rosillo/X. Mendiguren. L.G.E.V. Bilbao. 21,5 x 20,5. 64 or.
- Kolorea.** Lejoako Kimika taldea. U.E.U., Bilbao. 14,5 x 20,5. 178 or.
- Kondairaren ihauterian.** Jose Angel Irigaray. C.A.P. Donostia. 13,5 x 21. 44 or.
- Kotxe lapurrak (i).** L. G. Alexander. Euskaltzaindia, Bilbao. 13 x 20. 16 or.

- Laborantzako liburua.** Jean Pierre Duvoisin. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 392 or.
- Lamiñak.** S. Onaindia. Egile-editore. Amorebieta. 16 x 23. 216 or.
- Lehen irudiak, lehen hitzak** (16 liburuxka) (i). Rosa Sensat/Irakasle taldea. —. —. 12,5 x 21. 20 or.
- Liburu ederra.** Aita Cardaveraz. **Lapurdico escarara itzulia** (b). Jean Pierre Duvoisin. Aita Cardaveraz. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 282 or.
- Manual devotioenezcoa** (b). Etxeberri Joannes. Hordago. Donostia, 14 x 20,5. 214 or.
- Markiña zarra kontu kontari.** Juan Joxe Arrizabalaga «Markiña». Egile-editore. Ermua. 15 x 21,5. 142 or.
- Matematika** (hiztegi, hizkera, irakurbideak). Mikel Zalbide. UZEI. E.F.A. Jakin. Arantzazu. 16,5 x 23,5. 48 or.
- Matematika 8. O.H.O. 82 Funtzio polinomikoa.** Elhuyarreko matematika-taldea. —. —. 21 x 30. 116 or.
- Matematika 8. O.H.O. 83 Egitura Algebraikoak.** Elhuyar matematika-taldea. G.I.E. sorta eta G.I.I. Elkartea. Donostia. 21 x 30. 56 or.
- Matematika 7. O.H.O. 71. Q multzoa.** Elhuyarreko matematika-taldea. —. Lazkao. 32 x 21,5. 82 or.
- Matematika 7. O.H.O. 81 Polinominoak.** Elhuyarreko matematika-taldea. G.I.E. sorta eta G.I.I. Elkartea. Donostia. 32 x 21,5. 112 or.
- Matxitxako Lur-buruko-gudua** (e). 2. liburukia. G.E.V. Bidasoa ingurraztiak, 2. —. —. —. 112 or.
- Meditacioneac gei premiatsuenan gainean** (b). Martin Duhalde. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 584 or.
- Método de Euskera radiofónico / Euskera irrati bidez. Gipuzkoera** (e). (2.^a curso, 1.^a parte). Juan Oñatibia. Edili. Donostia. 15 x 21,5. 224 or.
- Mirande eta Kristautasuna.** Joxe Azurmendi. C.A.P. Donostia. 13,5 x 21. 176 or.
- Monumentos de Guipúzcoa / Gipuzkoako Oroitarriak** (e). L. P. Peña Santiago. C.A.P. Donostia. 21 x 28. 30 or.
- Musika 1. Gida liburua** (e). Manuel Urbieta, Lutxi Manzisidor. Egile-editore. Zarautz. 21 x 21. 24 or.
- Nazio arazoa.** «Bereterretxe». —. —. —. 212 or.
- Nere mendixkatik.** (E.T.A.'ko gudariez apez bat mintzo). Piarres Larzabal. Dizkola. Donibane L. 15,5 x 21,5. 120 or.
- Nire biotza** (método fácil para el aprendizaje del euskera bizkaino). (X. Peñaren apunteak). Jesus Villegas Kambra. L.G.E.V. Bilbao. 15 x 22,5. 266 or.
- Olerkiak** (b). Bernat Dechepare. Txertoa. Donostia. 13,5 x 19,5. 228 or.
- Olerki solteak.** Jesus Etxezarraga. L. Zugaza. Durango. 15,5 x 24. 56 or.
- Osaba Gabrielen asesinatzea.** X. Gereño. Egile-editore. Pipa saila. Bilbao. 11,5 x 16,5. 160 or.
- Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945) I.** A. Zavala. Auspoa. Tolosa. 10,5 x 18. 150 or.
- Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945) II.** A. Zavala. Auspoa. Tolosa. 10,5 x 18. 144 or.
- Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945) III.** A. Zavala. Auspoa. Tolosa. 10,5 x 18. 146 or.

- Perpau bakunaren sintasia.** J. A. Mujika. Gero. Bilbao. 15,5 x 22. 152 or.
- Peru Abarka** (e). Jose Antonio Moguel/R. M. Azkue. L.G.E.V. Bilbao. 16 x 22,5. 158 or.
- Peru Abarcaren berrirakurtzea.** Angel Zelaieta. L. Haranburu, Kriselu. Donostia. 11 x 17. 148 or.
- Pinto** (bizkaieraz). Felix Zubiaga. Ibaizabal (Graf. Bilbao, Amorebieta). 16,5 x 23,5. 120 or.
- Pintura Vasca Contemporánea / Gaur eguneko euskal pintura (1935-1978).** Juan M. Alvarez Empananza. C.A.P. Donostia. 23 x 27. 232 or.
- Sagardo.** Jose Uria Irastortza. S.G.E.P. Donostia. 21 x 26,5. 288 or.
- Saioka, matematika 2.** Taldean egina. —. —. 21 x 27,5. 151 or.
- Saioka 6. Natur arloa.** Taldean egina. —. —. 21 x 27,5. 244 or.
- Saioka 6. Plastika eta dinamika.** (Higidur adierazpena, musika). K. Baelo, A. Biar, J. A. Zalduegi. Argazkiak: J. M. Susperregi. X. X. —. 21 x 27,5. 256 or.
- Santa Cecilia abesbatza / Coral Santa Cecilia (1928-1978).** Javier M.^a Sada/Jon Urrujolegi. C.A.P. Donostia. 14 x 20. 98 or.
- Santuario de Guadalupe / Guadalupeko Ama** (e). Florentino Portu. Egile-editore. Hondarrabi. 15 x 21. 157 or.
- Sortzen 1. Ortografia, deklinabidea, sintaxisa.** Juan Luis Goikoetxea, J. J. Zearreta, R. Badiola. Egile-editore. Bilbao. 21 x 15. 382 or.
- Sukaldean** (i). Asunción Lissón/X. Mendiguren. La Galera. «Apurak» saila. Barcelona. 15 x 17. 16 or.
- Testamen çaharreko eta berrico historiao** (2 liburuki) (b). Bernard Larreguy. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 886 or.
- Testuak aztertzen.** Joxe Antonio Mujika. Gero. Bilbao. 11 x 18. 196 or.
- Termitosti-Bidaia.** Joxe Antonio Arrieta. Ustela saila. Donostia. 11 x 19. 78 or.
- Txirula mirula** (Musika 1. O.H.O.). Imanol Urbieta, Lutxi Manzisidor. Irudiak: X. Egaña. E.F.A. Jakin. Arantzazu. 22 x 29,5. 112 or.
- Txuri eta Gorri eta Kikiriki.** Manuel Lekuona. Etor. Donostia. 17 x 24. 72 or.
- Umetxoak** (gipuzk. bizk.). X. X. Etor. Donostia. 17 x 24. 64 or.
- Ura eta Lurra.** UZEI. U.E.U. Bilbao. 14,5 x 20,5. 122 or.
- Virginaren officio da hirur officio.** C. Harizmendi. Hordago. Donostia. 14 x 20,5. 132 or.
- Xantaia Kontesari.** Xabier Gereño. Egile-editore. Pipa saila. Bilbao. 11,5 x 16,5. 154 or.
- Zeintzuk dire Euskadiko harreman ekonomikoak** (i). Francesc Navarro/B. Amundarain. Lankide Saila. Arrasate. 13 x 21,5. 88 or.
- Zortziko hautsiak. Barren ibarrak.** Luis M. Mujika. E.V. Donostia. 12 x 17. 184 or.
- Zutaz amoroski.** Jon Casenave, Jean Marc, Lanusse eta Javi Etxenike. Ustela saila. Donostia. 21 x 20,5. 52 or.
- 21** (e). Taldean. Hordago. Donostia. —. 333 or.
- 77.eko barne erretratua** (i). Jose I Gurrutxaga/R. Badiola. Egile editore. Bilbao. —. 100 or.

Erdal liburuak Euskal Herriaz

- Acuerdo de Zubieta y otros relatos**, El. J. M. Bellido. E.V. San Sebastián. 236 p.
- Aezkoa: 200 años de lucha** (de 1784 al atentado de ETA). Fermín Goñi. Euskal Bidea. Pamplona. 142 p.
- Alava, Guipúzcoa y Vizcaya a la luz de su historia**. Andrés E. de Mañaricua. L. Zugaza. Durango. 95 p.
- Alcoholismo en la ciudad de Vitoria**, El. E.D.I.S. Vitoria. 496 p.
- Amar a Euskalerría conociéndola** (Laburdi, Benabarra, Zuberoa). Juan José Lapitz. Autor editor. 230 p.
- Anton Sukalde**. Tellagorri. E.V. San Sebastián. 286 p.
- Apuntes etnográficos del valle de Aramayona: aperos de labranza (lanabesak)**. Juan Garmendia Larrañaga. C.A.M. de Vitoria. 249 p.
- Arquitectura y los arquitectos de la Región en el entorno de Bilbao, I-II, La**. D. Fullaondo. —. —. —.
- Askatasunaren ibilaldia / Marcha de la libertad / Marche de la liberté**. Edic. preparada por Jokin Apalategui. 312 p.
- Así fue**. (Dossier San Fermín 78). Pamplona. 56 p.
- Baroja, Los**. (b). Julio Caro Baroja. Taurus. Madrid. 540 p.
- Baroja, las mujeres y el sexo**. Francisco Bergara. Editora Nacional. Madrid. 432 p.
- Batallones de Euskadi, Los**. Miguel de Amilibia. Txertoa. San Sebastián. 233 p.
- Beta**. Pedro Ruiz Balerdi. Hordago. San Sebastián. 253 p.
- Bilbao y el Bajo Nervión, un espacio metropolitano**. Precedo Ledo. —. —.
- Brujas de Sorjin, Las** (b). Martín de Ugalde. E.V. San Sebastián. 288 p.
- Burgos: juicio a un pueblo**. Lurra. Hordago. San Sebastián. 387 p.
- Carabinas de Gastibeltsa, Las** (i). M. Légasse. Txertoa. San Sebastián. 143 p.
- Caserío: historia, socioeconomía y tierra, El** (b). Koldo Osozo. Club deportivo Eibar. 162 p.
- Castigo a los culpables**. Frco. Jav. Iturbe, José Ant.º Meoqui, Jesús González. Equipo de información y solidaridad. —. 95 p.
- Centros de Turismo donostiarra (50.º aniversario del Centro de Atracción y Turismo)**. Javier M. Sada. S.G.E.P. San Sebastián. 190 p.
- Cerámicas populares del País Vasco en las edades moderna y contemporánea, Las**. Leandro Silván. E.K.N. —. —.
- Cien piezas vascas para planta dulce**. Jesús Fdez. Ibañez. L.G.E.V. Bilbao. 118 p.
- Cien vascos de proyección universal**. C. López Sainz. —. —. —.
- Colección de Cédulas, Cartas-patentes, Provisiones, Reales Ordenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vascongadas. Tomo I**. Conrado y Señorío de Vizcaya (Edi. Facsímil de la de Madrid de 1829). Edit. Zocadover. Toledo. 490 p.
- Complemento Gramática Vasca** (2 tomos). Umandi. Kardaberaz. Tolosa. 584 p.
- Conciertos económicos, Los**. Carmen Postigo. L. Haranburu-«Euskal Historia». San Sebastián. 124 p.
- Conde al brigadier, El**. Javier. Legajo de cartas 1863-1891. José M. Recondo, S.J. Inst. Príncipe de Viana. Pamplona. 307 p.

- Constitución española 1978**, La. Elkar lanean. E.V. San Sebastián. —.
- Crisis económica y Euskadi**. Baleren Bakaikoa. Hordago. San Sebastián. 174 p.
- Crisis en Guipúzcoa**, La. José M. Mutilloa Poza. C.A.P. San Sebastián. 207 p.
- Cuales son las relaciones económicas del País Vasco**. Francesc Navarro. Colección Lankide. Mondragón. 96 p.
- Cuentos del Premio Aldecoa, 1972-1973, 1974-1975**. Consejo de Cultura, Diputación Foral de Alava, Vitoria. —. —. —.
- Cuerpos represivos ¡Disolución!** Gamarra. Mugalde. Hendaya. 544 p.
- Cultura Vasca II**. Erein. San Sebastián. 427 p.
- Dantzak**. Juan Ant.º Urbeltz Navarro. Jakin. Aránzazu. 275 p.
- De arrantzales a Gudarís del mar**. (A.S.E.). XX. —. —. 156 p.
- De canciones, danzas y músicos del País Vasco**. Enrique Jordá. L.G.E.V., Bilbao. 210 p.
- De Euskadi al campo de exterminio** (memorias de un gudari). José M. Mugerza. Luis Haranburu-Hemen. San Sebastián. 194 p.
- Del Carlismo al nacionalismo burgués**. Beltza. Txertoa. San Sebastián. 236 p.
- Denuncia en el Parlamento**. Ortzi. Txertoa. San Sebastián. 214 p.
- Derecho foral penal en Euskalerría**. Estornés Lasa. —. —. —.
- Diario y cartas desde la cárcel**. Eva Forest. Hordago. San Sebastián. 190 pág.
- Disparos en el Bidasoa**. José M. Bellido. E.V. San Sebastián. 172 p.
- D. Agustín de Jauregui y Aldecoa (I)**. Presidente, Gobernador y Capitán General del Reino de Chile (1773-1780). Eulogio Zudaire. Inst. Príncipe de Viana. Pamplona. 266 p.
- Economía y sociedad bilbaínas en torno al sitio de 1874**. Manuel Basas Fernández. Junta de Cultura de Vizcaya. 677 p.
- Elegidos de Euskadi, un atentado al futuro, Los**. Odei Erreka. GEU. Bilbao. 237 p.
- Emakume abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco**. (e) Vol I. Polícarpo de Larrañaga. Auñamendi. San Sebastián. 176 p.
- Encartaciones, Las**. Antonio de Trueba. GEU. Bilbao. 280 p.
- En la persecución, Archivos Clero Vasco I — Año 1936**. E.A. Talde. Graf. Izarra. Usúrbil. 124 p.
- Epidemias de cólera en Vizcaya en el siglo XIX**. Manuel Vitoria Ortiz. L.G.E.V. Bilbao. 254 p.
- Escuela pública vasca, una alternativa para la enseñanza en Euskadi**. Luis Otaño. Cuadernos de Educ. Adarra. —. 61 p.
- Estudio estructural del euskara de Ondarroa**. Karmele Rotaetxe. L. Zugaza. Durango. 714 p.
- Estudios sanitarios en la costa guipuzcoana**. Luis Contreras Poza. S.G.E.P. San Sebastián. 174 p.
- Estudios de sintaxis vasca**. Fr. Luis Villasante. E.F.A. Aránzazu. 255 p.
- Eternos Sanfermines**. José María Baroja. —. —. 271 p.
- Etimologías vascas en la obra de Luis Michelena, Las**. Juan José Arbelaz. Kardaberaz. Tolosa. 155 p.
- Euskadi ante las elecciones municipales**. «Talde». E.V. San Sebastián. 153 p.

- Euskadi, dos comunidades.** Manu Escudero. L. Haranburu. San Sebastián. 153 p.
- Euskadi, dos años de impaciencia I. El Dictador ha muerto.** Koldo San Sebastián. Col. Euskal Bidea, Pamplona. 48 p.
- Euskadi, dos años de impaciencia II. Noiz arte?** Koldo San Sebastián. Col. Euskal Bidea, Pamplona. 88 p.
- Euskadi, herri batzarrea.** Colectivo IPES. Zero-ZYK. —. 206 p.
- Euskadi nucléaire.** Dossier n. 1. Altabizkar taldea. Elkar-Baiona. 46 p.
- Euskaldunak. La Etnia Vasca.** En colaboración. Etor, San Sebastián. 250 p.
- Euzkadi, llama eterna.** Agustín de Alzola. GEU. Bilbao. 171 p.
- Experiencias de nuestra lucha, 100 días de Huelga.** ATC-ko langileak. —. —. 75 p.
- Exposición antológica Ignacio Echandi.** XX. S.G.E.P. San Sebastián. 72 p.
- Flexiones del verbo vasco vizcaíno.** (b). Pedro Pujana. G.E.V. Bilbao, 126 p.
- Función de los modernos medios de pago, La. Aproximación socioeconómica a la realidad guipuzcoana.** Alberto Martínez Aramberri. C.A.P. San Sebastián. 123 p.
- Garaldea.** Federiko Krutwig. Txertoa. San Sebastián. 219 p.
- Gernika, cuna de la democracia vasca.** José Lasa Apalategui. San Miguel. 230p.
- Gobierno Vasco y los anarquistas, El. Bilbao en guerra.** Manuel Chiapuso. Txertoa. «Ipar haizea». San Sebastián. 252 p.
- Guerra de Franco, los vascos y la Iglesia, La.** 2 libros. Juan de Iturralde. Graf. Izarra, Usurbil. 1048 p.
- Guerra en Euskadi, La.** Jiménez de Aberásturi. —. —. —.
- Gure Errenderi** (informe urbanístico). Coordinadora de comisiones de urbanismo de los barrios. —. —. 190 p.
- Guía completa de Vitoria y Alava 1978-79.** —. Ed. Plaza. —. 95 p.
- Guía del museo provincial de arqueología de Alava, Diputación Foral de Alava.** —. —. —. 99 p.
- Guipúzcoa y sus hombres** (ensayo histórico y antropológico). Pedro Uriarte. S.G.E.P. San Sebastián. 298 p.
- Hernani-I.** Tomás Goikoetxea «Gaurhuts». Hordago. San Sebastián. 152 p.
- Histoire du Peuple Basque.** Jean-Louis Davant. Elkar. Baiona. 304 p.
- Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA.** (b). F. Letamendía «Ortzi». Ruedo Ibérico. —. 446 p.
- Historia de la cultura y del arte de Pamplona.** 1. parte: Antigüedad y Edad Media. C.A.M. de Pamplona. 250 p.
- Historia del Pueblo vasco.** En colaboración. Erein. San Sebastián. 270 p.
- Historia del País Vasco.** Juan Ignacio Paul Arzak. L. Haranburu. San Sebastián. 184 p.
- Historia de la Universidad de Deusto.** Carmelo Saenz de Santa María. L.G. E.V., Bilbao. 260 p.
- Historia de los Ipenarrieta y de sus casas-palacio.** Manuel Urkola, y otros. —. —. 123 p.
- Ibarrola, ¿un pintor maldito?** Javier Angulo Barturen. L. Haranburu. San Sebastián. 360 p.

- Ideologías del Nacionalismo vasco.** Antonio Elorza. L. Haranburu. San Sebastián. 466 p.
- Informe del presidente Agirre, El. (b).** L.G.E.V., Bilbao. 636 p.
- Insurrección de los Vascos, La.** Eduardo Uriarte. Hordago. San Sebastián. 280 p.
- Introducción a la historia medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos.** José Angel García de Cortázar, Beatriz Arízaga, Rosa M. Martínez Ochoa, María Luz Ríos. Txertoa. San Sebastián. 220 p.
- Inventario de bienes de Olite (1496).** Ricardo Ciérvide Martinena. Inst. Príncipe de Viana. Pamplona. 344 p.
- Joaquín de Lizarraga (1748-1835) Un escritor navarro en euskara.** Juan Apechechea Perurena. Inst. Príncipe de Viana. Pamplona. 375 p.
- José Ignacio de Alcorta. Semblanza y pensamiento.** En colaboración: L. Legar, A. Rodríguez. L.G.E.V. Bilbao. 236 p.
- Juego de bolos en Alava. El.** Joaquín Jimenez. Dip. F. de Alava, Consejo de Cultura. Vitoria. 81 p.
- Kurtzebarri.** José Letona Arrieta, Juan Leibar Guridi. C.A.P. San Sebastián. 98 p.
- Lengua Vasca. La.** Koldo Mitxelena. L. Zugaza. Durango. 87 p.
- Lengua Vasca en la Rioja y Burgos. La.** José J. Bautista Merino Urrutia. —. —. 109 p.
- Lengua y Literatura vasca.** Patri Urkizu. L. Haranburu. San Sebastián. 174 p.
- Lenguaje Vasco. El. (b).** «Orixe»-Martín de Oiarzabal. —. —. 147 p.
- Luchas y la defensa de los renteros y medieros (Cadreita) La radicalización del cooperativismo (Alcanadre), Las.** A.R.R.E. Hordago. San Sebastián. 156 p.
- Medicina popular en el País Vasco. La.** Ignacio María Barriola. E.V. San Sebastián. 167 p.
- Mejor defensor el pueblo. El.** Miguel Castells. E. V. San Sebastián. 264 p.
- Mil días: de la dictadura a la preautonomía en Euskadi.** Joseba Koldo Narbarte. E. V. Baiona. 254 p.
- Museo de bellas artes, Bilbao.** Javier de Bengoechea. L.G.E.V. Bilbao. 530 p.
- Nabarra ou quand les basques avaient des rois.** Narbaitz. —. —. —.
- Nacionalismo Vasco. El.** Beltza. Txertoa. San Sebastián. 334 p.
- Nationalisme et question nationale au Pays Basque, 1830-1976.** Jokin Apaategi. Elkar, Baiona. 283 p.
- Navarra abundancia.** Mario Gabiria y equipo. Hordago. San Sebastián. 426 p.
- Navarra ante los Estatutos. (1916-1932).** —. E.L.S.A. Pamplona. 330 p.
- Navarra desde Navarra. (i).** En equipo. Jakin. Aránzazu. 166 p.
- No os importe matar.** Hiru taldea. E.V. San Sebastián. 236 p.
- Nosotros los vascos.** Karmele Saint Martín. E.V. San Sebastián. 176 p.
- Nuestra boina.** José M. Bereciartúa. L.G.E.V. Bilbao. 204 p.
- Obras escogidas. Antología política.** Sabino Arana Goiri. Luis Haranburu. San Sebastián. 222 p.
- Operación Ogro: cómo y por qué ejecutamos a Carrero Blanco. (b).** Julen Agirre. Hordago. San Sebastián. 252 p.

- Operación Poncho: Las fugas de Segovia.** Angel Amigo. Hordago. San Sebastián. 252 p.
- Oportunidad y éxodo rural en dos aldeas vascas.** Douglas, W.A. —. —. —.
- Orria ou la bataille de Roncevaux (778).** Pierre Narbaitz. Zabal. Bayona. 239 p.
- Origen de la nación bascongada y de su lengua (b).** Juan de Perochegui. E.V. San Sebastián. 140 p.
- Origen de los vascos, El.** Parellada de Cardellac. —. —. —.
- Origen y desarrollo de la sufijación euskérica.** Luis María Mújica. E.V. San Sebastián. 390 p.
- Oteiza, su vida, su obra, su pensamiento, su palabra.** Miguel Pelay Orozco. L.G.E.V. Bilbao. 606 p.
- País Vasco, Iglesia y revolución liberal.** Francisco Rodríguez de Coro. —. —. 430 p.
- Para conocer a los vascos.** C. Orjas. —. —. —.
- Para no sé quién.** Frco. Sagarzazu Badiola. C.A.P. 1978. San Sebastián. 176 p.
- Partido nacionalista vasco, ante la constitución, historia y alcance de sus negociaciones, El.** X.X. —. —. 213 p.
- Partiendo de Guipúzcoa. 50 excursiones de arte y paisaje (b).** I. Linazasoro. C.A.P. San Sebastián. 387 p.
- Pelote Basque.** (Catálogo Industrial Vasco-Navarro). —. —. —.
- Permanencias y arquitectura urbana.** José Ignacio Linazasoro. Gustavo Gilli. —. 233 p.
- Pertur, ETA 71-76.** Angel Amigo. Hordago. San Sebastián 314 p.
- Pido un Monumento.** Sancho de Beurco. L.G.E.V. 78. Bilbao. 128 p.
- Pleito perdido por San Sebastián (1623-1627), Un.** Tarsicio de Azcona. S.G.E.P. San Sebastián. 160 p.
- Por el Pirineo Navarro (Del Baztán a Belagua).** Cayetano Enrique de Salamanca. Autor editor. Madrid 176 p.
- Prefijación, clave del euskara técnico y urbano, La.** Luis M. Mujika. E.V. San Sebastián. 252 p.
- Primer libro impreso en euskera (año 1545), El.** (edición facsímil). L.G.E.V. Bilbao. 92 p.
- Que se vayan ya.** (San Fermín-Donostia-Errenteria, Julio 78). Landazuri. Mugalde. Hendaya. 271 p.
- Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936).** Ignacio Olabarri Gortazar. L. Zugaza. Durango. 504 p.
- Rincones de Guipúzcoa.** Luis Pedro Peña Santiago. Txertoa. San Sebastián. 138 p.
- Rioja Alavesa.** Javier Palacios. Hordago. San Sebastián. 270 p.
- Roncesvalles en Guipúzcoa II.** José M. Mutiloa Poza. C.A.P. San Sebastián. 252 p.
- Roncesvalles en Guipúzcoa III — La desamortización en Articuza y Cegama.** José M. Mutiloa Poza. C.A.P. San Sebastián. 424 p.
- Salto del Salmón (doce horas en la vida de un guerrillero), El.** Gorka Trintxerpe. Col. Euskal Bidea. Pamplona. 78 p.
- San Sebastián. Donostia.** Luis Murugarren. S.G.E.P. San Sebastián. 510 p.

- San Sebastián, historia y alma de sus calles.** Ignacio Pérez-Arregui Fort. S.G.E.P. San Sebastián. 322 p.
- «Setas del País Vasco», 8. serie.** Aranzadi, Sociedad. S.G.E.P. San Sebastián. 35 p.
- Sociedad vasca actual,** La. Luis C. Nuñez. Txertoa. San Sebastián. 211 p.
- Sondeos históricos (Estudios Vascos VIII).** Julio Caro Baroja. Txertoa. San Sebastián. 162 p.
- ¡Sr. Juez! (Soy presa de Franco).** María Frca. Dapena. L. Haranburu-Hemen. San Sebastián. 230 p.
- Tejiendo historia.** José Ignacio Lasa. S.G.E.P. San Sebastián. 631 p.
- Todos los caminos son válidos.** Miguel Pelay Orozco. L.G.E.V. Bilbao. 114 p.
- Torres y casas fuertes en Alava.** M. Portilla. —. —. —.
- Txiki-Otaegi: El viento y las raíces.** Javier Sánchez Erauskin. Hordago. San Sebastián. 340 p.
- Urbasa y Andía, Solar de los navarros.** Alfredo Floristán. Col. Diario de Navarra. Pamplona. 225 p.
- Un vasco en la postguerra. Diario 1939-1971.** José de Arteche. L.G.E.V. Bilbao. 247 p.
- Vasconia, estudio histórico-crítico (siglo VI-XI).** Vol. II. Jean de Jaurgain. Auñamendi. San Sebastián. 210 p.
- Vascos, Los.** Jacques Allières. EDAF. P.U.F. París. 196 p.
- Vascos que escribieron en castellano, Los.** Elías Amezaga Urlezaga. Tomo I. —. Bilbao. 342 p.
- Vascos: síntesis de su historia, Los (b).** Ortzi. Hordago. San Sebastián. 263 p.
- Veinte años de gestión del Gobierno vasco (1936-1956).** José Antonio de Aguirre. L. Zugaza. Durango. 127 p.
- Vías de nuestro proceso político propio, Las. — Navarra, clave del desarrollo político vasco.** Bultzagilleak. Itxaropena. Zarauz. 54 p.
- Vida y obra del Doctor Urrutia.** Manuel Vitoria Ortíz. L.G.E.V. Bilbao. 462 p.
- 100 años de concierto económico.** M. Zurita. —. —. —.
- 19 condenados a muerte.** Iñaki Barriola. E.V. San Sebastián. 252 p.
- 50 años de Nacionalismo Vasco (1928-1978).** Eugenio Ibarzabal. E.V. San Sebastián. —.
- 75 Aniversario Escuela San José.** Javier M. Sada. C.A.P. San Sebastián. 36 p.